

GLOSATEGIA: HAURREN ESKUBIDEAK

B - Bigarren belaunaldiko eskubideak:

Eskubide ekonomikoak eta sozialak dira eta berdintasun-eskubidea dute oinarrian.

H - Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Nazio Batuen nazioarteko itun bat da eta 18 urtetik beherako pertsonak babesa edukitzeko, garatzeko eta gizartean aktiboki parte hartzeko eskubidea dutela aitortzen du; halaber, haurrak eskubide-subjektuak direla ezartzen da bertan. 1989ko azaroaren 20an onartu zuen Nazio Batuen Batzar Orokorrak. Munduko herrialde guztiek berretsi dute, hiruk izan ezik (Somaliak, Amerikako Estatu Batuek eta Sudanek).

- Hitzarmena, akordioa edo ituna:

Herrialdeen artean, nazioarteko erakundeen artean (Nazio Batuak edo Estatu Afrikarren Batasunak, adibidez) edo herrialdeen eta nazioarteko erakundeen artean sinatzen diren akordioak dira. Helburutzat dute akordioa sinatzen eta berresten duten herrialdeetan legalki errespetatuko diren itunak ezartzea.

- Haurren Eskubideen aldeko Batzordea:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu eta berretsi duten Estatuak haurren eskubideak babesteko dagozkien betebeharrak betetzen ote dituzten gainbegiratzeko ardura duten pertsonen taldea da.



Nazio Batuetako kide diren herrialdeen banderak. - UN Photo/Jean-Marc Ferré

- Haurren Eskubideen Deklarazioa:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sortu aurretik, Haurren Eskubideen Deklarazioa zen haurren eskubideak aitortzen zituen nazioarteko agiri bakarra. Hitzarmenak ez bezala, ez zuen balio legalik sinatzen zuten herrialdeentzat. 1924an sinatu zen lehen Deklarazioa eta 1946an eta 1959an zabaldu egin zen.

E - Eskubide-gatazka:

Pertsona baten edo gehiagoren eskubideen gauzatzek beste batzuen eskubideak mugatzen dituen gertatzen den egoera da. Adibidez, pertsona batek beste bat zelatatzen duenean (azken horren intimitate-eskubidea urratuz), beste pertsona batzuentzako arriskutsua izan daitekeelako (segurtasun-eskubidea). Halaber, gatazkak sor daitezke erkidego baten ohituren edo talde baten interesen (kultur eskubideak) eta gizabanakoen eskubideen artean. Adibidez, eskubide-gatazkak sortzen dira ablazioarekin eta haurrentzako kaltegarriak diren bestelako jardunbide tradizionalekin.

Eskubide besterenezinak:

Giza Eskubideen antzera, Haurren Eskubideak besterenezinak dira. Horrenbestez, ezin dituzu galdu, gizaki izatearekin lotuta baitaude. Egoera berezietan, zenbait eskubide etenda edo mugatuta gera daitezke. Adibidez, pertsona bat krimen baten errudun bada, askatasunik gabe gera daiteke.

- Eskubide zatiezinak, elkarren mendeak eta elkarrekin erlazionatutakoak:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko eskubideak elkarrekin konektatuta daude berez eta ezin dira bata bestetik bereizirik ulertu. Eskubide bat edukitzea beste eskubide askoren mende dago eta ez dago gainerako eskubideak baino garrantzitsuagoa den eskubiderik.

- Eskubide unibertsalak:

Haurren Eskubideak unibertsalak dira, horrenbestez, berdin-berdin dagozkie neska eta mutil guztiei, munduko edozein lekutan eta denbora-mugarik gabe. Neska edo mutil guzietan dute beren eskubideez gozatzeko eskubidea,



Giza Eskubideen Aldeko Batzordea. - UN Photo/Jean-Marc Ferré

arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikak, jatorria, jaiotza, eta abar direla-eta diskriminaziorik jasan gabe.

- Eskubide naturalak:

Jaiotzean bertan bereganatzen dira eskubide naturalak, gizakiak berezkoak ditu eta pertsona ororen duintasuna dute oinarrian. Eskubide positiboetatik desberdinak dira; izan ere, eskubide positiboek legeak soilik dituzte oinarrian eta ez dagozkie jaiotzatik gizaki guztiei. Esate baterako, esklabo ez izateko eskubidea eskubide naturala da, baina hilabeteko oporrak edukitzeko eskubidea eskubide positiboa da.

- Eskubide zibilak:

Eskubide zibilek integritate fisikoa eta morala lortzeko gutxieneko bermeak ziurtatzen dituzte eta gizabanakoei beren kontzientzia-esparru eta sinesmen propioak edukitzea ahalbidetzen diete: esate baterako, berdintasun-eskubidea eta askatasun-eskubidea, gurtza-askatasuna eta iritzi propioa adieraztekoa, eta torturarik ez pairatzeko edo beste norbaitek ez erailtzeko eskubidea.

- Eskubide politikoak:

Eskubide politikoak beharrezkoak dira erkidegoaren eta gizartearen bizitzan parte hartzeko: adibidez, boto-eskubidea, alderdi politiko bateko kide izateko, askatasunez elkartzeko eta bileretan parte hartzeko eskubidea, nor bere iritzia adieraztekoa eta informazioa eskuratzeko eskubidea. Adingabeek ezin dute bozkatu edo alderdi politiko baten kide izan, baina Hitzarmenak beren bizitzan eragiten duten gaiei buruz iritzia emateko eskubidea aitortzen die, eta informazio egokia eskuratzeko, bileretan parte hartzeko eta elkartzeko eskubidea ere bai.

- Eskubide ekonomikoak:

Eskubide ekonomikoen barruan sartzen dira lanerako eskubidea (helduen kasuan), bizi-maila egokia edukitzeko eta etxebizitza bat edukitzeko eskubideak, eta pentsio bat jasotzeko eskubidea, hirugarren adineko pertsonen, umezurtzen edo ezinduen kasuan. Gizaki orok duintasuna lortzeko gutxieneko segurtasun materiala edukitzea beharrezkoa dela azpimarratzen dute eskubide ekonomikoek. Mundu osoan pobretasunak eragiten du neska eta mutil askok hezkuntza, osasuna, esplotazioaren aurreko babesa edo biziraupena bera bezalako eskubideak galtzea.



Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak mundu osoko haur guztiak modu berean babesten ditu.

© UNICEF/NYHQ2008-1796/Giacomo Pirozzi

- Estatu partaidea:

Itun bat sinatzen duen (itunaren edukia onartzen eta babesten du) eta berresten duen (kasuan-kasuan bere legeak itunean adierazitakora egokitzeko konpromisoa hartzen du) estatu oro.

F - Funtsezko printzipioak:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak funtsezko lau printzipio ditu oinarrian: parte-hartzea, biziraupena eta garapena, diskriminaziorik eza eta haurren interes gorena.

G - Giza Eskubideak:

Gizaki orok jaiotzen denetik duen eskubide komunak multzoa, kasuan-kasuan herrialdeak eskaintzen dituen legebermeak edozein direlarik. Giza Eskubideek funtsezko bi balio dituzte oinarrian: berdintasuna eta giza duintasuna. Haurren Eskubideak Giza Eskubideak dira, halaber.

- Gizarte-eskubideak:

Gizarteko bizitzan erabat parte hartzeko beharrezkoak diren eskubideak dira. Besteak beste, hezkuntza-eskubidea eta familia bat edukitzeko eskubidea barne hartzen dira, baita "eskubide zibiltzat" jotzen diren beste eskubide asko ere, sarritan: adibidez, ondo pasatzeko eskubidea, osasunaren eskubidea eta intimitatea edukitzekoa, baita diskriminaziorik ezaren eskubidea ere.

H - Hautazko protokoloak:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena indarrean sartu eta gero, agiri osagarriak landu ziren. Agiri osagarri horiek haurrek berariazko arlo baten duten babesa areagotzeko balio dute. Hiru daude: Haurren salmentari, haurren prostituzioari eta haurrak pornografian erabiltzeari buruzko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko Hautazko Protokoloa (67 herrialdek berretsia), haurrak gatazka armatuetan erabiltzeari buruzko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko Hautazko Protokoloa (66 herrialdek berretsia) eta komunikazioen prozedurari buruzko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko Hautazko Protokoloa (11 herrialdek berretsia).

- Hirugarren belaunaldiko eskubideak (eskubide kolektiboak):

Elkartasuna da hirugarren belaunaldiko eskubideen funtsezko ideia. Hirugarren belaunaldiko eskubideen kategorian sarriagotan barne hartzen diren berariazko eskubideak dira, besteak beste: garapen-eskubidea, bakerako eskubidea, ingurumen osasungarria edukitzeko eskubidea, gizateriaren jaraunspen komunean parte hartzeko eskubidea, komunikazio-eskubidea eta arreta humanitarioa jasotzeko eskubidea.

K - Kultur eskubideak:

Kultur eskubideek erkidego baten "bizimoduari" egiten diote erreferentzia eta beste eskubide mota batzuei baino arreta gutxiago ematen zaie, normalean. Erkidegoko kultur bizitzan askatasunez parte hartzeko eskubidea barne hartzen dute. Haatik, ez dira bigarren mailako eskubideak, gutxiengo kultural eta etnikoen kasuan batez ere, diskriminaziorik ezaren eskubidearekin lotuta daudelako. Haur indigenek beren kultur giroan garatzeko duten eskubidea eta diskriminaziorik ez pairatzeko eskubidea aitortzen du Hitzarmenak, baita beren hizkuntza propioan ikasteko eskubidea ere.

L - Lehen belaunaldiko eskubideak:

Eskubide zibil eta politikoak dira eta askatasun-printzipioa dute oinarrian.

- Lege-eskubideak:

Sistema politiko eta legalarekin erlazioan prozedura-babesa ematen diete pertsona guztiei: adibidez, atxiloteta bidegabeen aurkako babesa, justizia-epaitegiak errudun aitortu arte errugabetzat jotzeko eskubidea eta apelazio-eskubidea. Adingabeek ez dute lege-autonomiarik kontratu eta lege-izapide gehienak egiteko, baina eskubidea dute beren interesak defendatuko dituzten pertsona helduek beren ordeztu jarduteko. Gainera, legearekin gatazkarik egonez gero, neskek, mutilak eta nerabeek eskubidea dute babes berezia jasotzeko atxilotzen badituzte, epaitzen badituzte edo nonbait itxita egotera zigortzen badituzte.